

## Galdera

*lengua de instrucción* nola eman euskaraz?

Horrekin adierazi nahi dugu zer hizkuntzatan ikasten duten ikasleek. Ikasle batek euskaraz ikasten badu, *lengua de instrucción* euskara izango litzateke. Baditugu proposamen batzuk: 'instrukzio-hizkuntza', 'ikasketa-hizkuntza', 'irakaskuntza-hizkuntza' edo 'heziketa-hizkuntza'. Guk azken biak erabili izan ditugu, baina nire ustez 'ikasketa-hizkuntza' argiagoa da. Zer deritzozue? Zein da egokiena?

## Erantzuna

Gure iritzian, **irakaskuntzako hizkuntza**

**1/** Badira, nolahi ere, beste aukera batzuk: 'irakasteko hizkuntza', 'eskolatze-hizkuntza', 'irakats-hizkuntza', 'heziketa-hizkuntza'...

**2/** Zenbait testuingurutan elkarren ondoan erabiltzen dira *lengua de instrucción* eta *lengua vehicular*, hau da, **'irakaskuntzako hizkuntza'** / **'komunikazio-hizkuntza'**. Adibidez:

[lengua de instrucción | marcoELE](#)

*lengua de instrucción* - La enseñanza del español como *lengua vehicular* en contextos académicos

**3/** UNESCOren Hezkuntzaren Plangintzarako Nazioarteko Institutuak honela jasotzen du gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez ([Lengua de instrucción | Unesco IIEP Learning Portal](#)):

es *lengua de instrucción*

«¿Qué lengua o lenguas deberían utilizar los niños en la escuela en los primeros años de **instrucción** formal?»

fr *langue d'enseignement*

«Quelle(s) langue(s) devraient utiliser les enfants à l'école, dès leur première expérience de **l'enseignement** formel ?»

en *language of instruction*

«Which is best—an international language or the mother tongue? What language or languages should children use in school, beginning with their earliest experiences of formal **instruction**?»

Ageri denez, gaztelaniak eta ingelesak ildo beretik jotzen dute. Frantsesak, berriz, **enseignement** terminoa darabil. Euskarak ere ildo hori bera joratu du estandarizazioaren bidean; izan ere, **irakaskuntza** hitza erabili izan da gehienbat, eta guk ondo deritzogu.

Bestalde, *irakaskuntza-hizkuntza* hitz-elkartea, guztiz zuzena eta hedatua bada ere, doi bat kakofonikoa da (*kuntza-kuntza*), gure iritzian, eta hitz-elkarte horren orde zuzenarekin (*irakaskuntza* + *-ko*) osatutako terminoa naturalagoa iruditzen zaigu: **irakaskuntzako hizkuntza**.

**4/** Orobat, 'ikasketa-hizkuntza' terminoa argia da; baina 'ikasi' aditzetik eratorria denez, *ikaste-irakaste* horretan *ikastearen* ikuspuntuan kokatzen da; *instruir* aditzak, aldiz, 'irakatsi' adiera du hemen, eta *instrucción* izenak 'irakastea'; beraz, *irakastearen* ikuspuntutik begiratzen dio prozesuari. Edozein kasutan ere, termino baliokideak dira 'ikasketa-hizkuntza' eta 'irakaskuntzako hizkuntza', 'irakasteko hizkuntza', 'eskolatze-hizkuntza', 'irakats-hizkuntza', 'heziketa-hizkuntza'... Erabilera arruntean edozein erabil daiteke.

Aukeratzekoan, kontuan hartu behar da zenbateraino egin nahi dugun testu formal bat eta terminoak adiera hertsian erabili. Gure ustez, ez dago aparteko eragozpenik zentzu zabalean erabili eta hizkuntza natural samarrean idazteko, esanahia argia den bitartean.

## 5/ Definizio bat eta azalpena:

«Irakaskuntzako hizkuntza (IH): eskola-testuinguruan komunikaziorako erabiltzen da curriculum-  
edukiak transmititzeko».

«Irakaskuntzako hizkuntza hainbat diziplinatatik aztertu izan da erregistro edo diskurtso gisa  
(Komunikazioaren etnografia, Ikasgaien didaktika, etab.), gehienetan helburu pedagogikoekin.  
Protagonismo berezia hartzen du ikaskuntza-helburu gisa bigarren hizkuntza (H2) irakasteko eskola-  
testuinguruetan».

## 6/ Hona hemen hiztegiek ematen dizkiguten zantzu batzuk:

[instruir - Elhuyar](#) - 1 v.tr. [irakatsi](#), [eskolatu](#); [hezi](#)

[instrucción - Elhuyar](#) - 1 s.f. [heziketa](#), [eskolatze](#); [formakuntza](#)

Euskalterm terminologia-banku publikoan *instrucción* terminorako 'eskolatze' dakar:

[eskolatze - Euskalterm](#)

Ildo beretik, honako sarrera hauek jasotzen ditu eremu semantiko berean:

*lengua científica* - 'zientzia-hizkuntza'

*lengua coloquial* - 'lagunarteko hizkuntza'

*lengua de civilización* - 'zibilizazio-hizkuntza'

*lengua de cultura* - 'kultura-hizkuntza'

*lengua de trabajo* - 'laneko hizkuntza'

*lengua familiar* - 'familia-hizkuntza'

*lengua hablada en casa* - 'etxeke hizkuntza'

*lengua internacional* - 'nazioarteko hizkuntza'

*lengua literaria* - 'literatura-hizkuntza'

*lengua materna* - 'ama-hizkuntza'

*lengua vehicular* - '**komunikazio-hizkuntza**'

*lengua vernácula* - 'herri-hizkuntza'

**7/** Azkenik, aitortu behar dugu ez dagoela gure esku honelako terminologia-auziak ebaztea. Erabilerak erabakiko du zein nagusituko den. Termino batek arrakasta badu, eta erabiltzaileek baliatzen badute, aurrera egingo du. Hedabideek, erakundeek eta hizkuntza-komunitatean eragina duten aktoreek dute azken hitza beti. Horrela erabakiko da estandarizazioaren bidea.